

ERABILERA PUBLIKOKO EREMUETAN TERRAZAK JARTZEKO ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

I. KAPITULUA HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua — *Helburua*

1. Ordenantza honen helburua herriko jabari-publikoetan ostatuaren ondoan epe iraunkorrerako jartzen diren mahaien, aulkien, eguzkitakoen eta antzeko elementuen instalazioak bete behar duen araubide tekniko eta juridikoa arautzea da.

2. artikulua — *Eremua*

1. Mahaiak eta aulkiak erabiliko dituen ostatuaren aurrealdean, ate nagusiaren hormaren parean, jarriko dira eta ezingo da ostatuaren barruan dagoen barraz gain beste barra bat jarri.

2. Halere, ostalariak instalazioak ostatuaren aurrealdeaz haraindi jartzeko eskaera egin dezake, inguruko jabeen erkidegoak ados daudela adierazten duen agiria aurkezten badu.

II. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

3. artikulua — *Udalaren baimena*

1. 1. artikuluan zehazten den jabari-publikoaren erabilera administrazioaren baimenaren menpe egongo da.

2. Baimena emateko eskumena alkateak izango du.

4. artikulua — *Eskaera*

1. Instalazio mota horiek jartzeko baimena Ordenantza honen 1. artikuluan aipatzen dituen ostatuetakotako titularrek eskatu ahal izango dute, une horretan baimena baldin badute eta haien jarduera ordenantza arautzen duten hirigintza eta arloko arauekin bat baldin badator.

2. Eskaera idazki formal baten bitartez egingo zaio alkateari eta honako agiri hauek erantsi beharkozaizkio:

a) Irekitzeko baimenaren edo jarduera baimenaren eta 8. artikuluan aipatzen den aseguruaren fotokopia.

b) Terrazak eta altzariek hartuko duten eremuaren planta planoak 1/100 eskalan.

3. Eraikinetan dauden ostatuaren ondoan terrazak eta mahaiak jartzeko erabili daitekeen jabari-publikoaren zatia Ordenantza honek baimentzen duena izango da.

4. Baimen guztiak jabetza-eskubidea errespetatuz eta hirugarrena kontuan hartuz emango dira. Terrazaren erabilera interesdunen arriskuarekin eta zoripean egingo da. Baimena ezingo da alokatu, berralokatu edo beste norbaiti pasatu, ez zuzenean ez zeharka ezta guztiz edo zati batean ere.

5. Eskaerak terraza instalatu aurretik 30 eguneko epearekin aurkeztu beharko dira Udalerregistroan eta egutegian terraza martxan jartzeko egun zehatza adierazi beharko da.

5. artikulua — Erabakia

1. Alkateak jasotako eskaeren inguruan erabaki bat hartuko du, Arlo Teknikoak horri dagokion kudeaketa egin ondoren.
2. Behin baimena eman ondoren, Zerbitzu Ekonomikoek tasak kobratuko dituzte.

6. artikulua — Funtzionamendu Ordutegia

1. Jarduera nagusiak baimenduta duen ordutegiaz gain, bi sasoi ezarriko dira honen arabera:

a) Neguko sasoi (urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta urriaren 1etik abenduaren 31ra):

— I Gandetik ostegunera:23:00ak arte.

— Ostiraletan, larunbatetan eta jai-egun bezperetan:24:00ak arte.

b) Udako sasoi (ekainaren 1etik irailaren 30era):

— I Gandetik ostegunera:24:00ak arte.

— Ostiraletan, larunbatetan eta jai-egun bezperetan:01:00ak arte.

2. Gainera, herriko jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra eta azokak, erakusketak edota udalak hala erabakita interes turistikoak diren antzeko ospakizunak daudenean, udako sasoi ordutegia ezarriko da.

3. Terraza erabiltzeko ordutegia amaitzen denean, bide publikotik elementu guztiak kendu beharko dira.

7. artikulua — Instalazioaren baldintzak

Jabari-publikoa erabiltzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Billarrak, mahai-futbolak, makinak edota antzeko elementuak instalatzea debekatuta dago; bai eta ikus-entzunezko tresnak eta soinu tresnak ere.

2. Hartutako zonaldeak ezingo du erabilera erkideko eremuetara, hots, lorategietara, oinezkoentzako esparruetara, aparkalekuetara, atarietara, lokaletara, eta abarretara pasatzeko bidea oztopatu.

3. Hartutako eremu publikoaren/pribatuaren zatia ezingo da inolaz ere espaloien zati erabilgarriaren %50 baino gehiago izan eta oinezkoei gutxienez 2 metroko bidea utzi beharko zaie.

4. Oinezkoentzat soilik diren kaleen kasuan, hartu ahal izango den zatia erdibidetik ostatuaren aurrealderaino joango da eta, gutxienez, oinezkoei 2 metroko bidea utzi beharko zaie. Gainera, eraikinen edo lokalen atariak beti libre utzi beharko dira.

5. Beharrezkoa izanez gero, berehala erabili ahal izateko, honako elementu publikoak libre geratu beharko dira:

— Ureztatze-ahoak.

— Estolderia eta/edo zerbitzuentzako zuloak.

— Larrialdietarako irteerak.

— Zerbitzuentzako kutxatilkak.

— Oro har, erabiltzeko eta zerbitzuetara bideratutako hiri-tresneri guztia.

6. Espaloietan pergolak edo estalpeak soilik finkatu ahal izango dira.

7. – Bai aulkien bai mahaien hanken muturrak goma edo antzeko material batez bildu beharko dira mugitzerakoan zarata ahalik eta gehien gutxitu ahal izateko.

8. artikulua — Asegurua

Ostatu baten titularrak izan behar duen erantzukizun zibileko eta sute aurkako aseguru polizaren eragina, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen Legearen arabera, terrazaren erabileragatik sor daitezken jatorri bereko arriskueta zabaldu beharko da.

III KAPITULUA ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

9. artikulua — Eskubideak

1. Baimena duen titularrak jarduteko eskubidea izango du, irekitzeko baimenaren baldintzak, Ordenantza honen aginduak eta ezar daitezken gainerako agindu legalak betez.

2. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, bat-batean suertatutako urbanizatzeko zein zerbitzu publikoen ezartze, ezabatze edota aldatze egoerak sortuko balira, Udalak, ebazpen ziodun baten bitartez, emandako baimena baliogabetu ahal izango du eta interesdunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

3. Baimendutako zonaldea erakusten duen agiria erabiltzaileen eta udal-zerbitzuen eskura egon beharko du.

4. Udal-zerbitzu teknikoek bide-marren edo margoaren bitartez zonaldearen mugak ezarriko dituzte.

10. artikulua — Betebeharrak

1. Hauek izango dira terrazaren titularraren betebeharrak:

a) Terraza eta terraza osatzen duten elementuak behar bezala mantentzea, itxura, garbitasuna eta segurtasunari dagokienez.

b) Hartutako eremua ongi erabiliz, inguruko biztanleei eragozpenak sortu ahal dizkieten zaratak eta arazoak saihestea, bera baita horren erantzule bakarra.

c) Bideetako edo ibiltzeko, pasatzeko nahiz etxebizitzaren eraikinetan edo lokaletan sartzeko beste zonaldeetako eremuak ez hartzea, horretarako baimenik ez badute.

2. Ezin dituzte terrazaren edo mahaien ondoan produktuak, edarien kutxak edota bestelako materialak pilatu.

3. Baimenen titularrak jardunaldi bakoitzaren amaieran, jarritako altzariak jasotzera eta lotuta gordetzera nahiz instalazioak hartzen duen lurra behar bezala garbitzera behartuta daude.

4. Baimena amaitzen denean, titularrak instalazioak hartzen duen lurra libre utzi beharko du. Horretarako elementu guztiak kendu eta garbiketa orokorra egin beharko du.

5. Nahitaezko betearazpenak titularrari baimena berriz eskatzeko eskubidea bi urtez galaraziko dio.

IV. KAPITULUA IKUSKARITZA ETA ARAU URRATZEAK

11. artikulua — Ikuskaritza

Udal zerbitzu teknikoaren eta herrizainaren eskumena da Ordenantza honetan eta ezar daitezken gainerako xedapenetan ezartzen diren arauak betetzen direla ikuskatzea. Hortaz, ikerketa, bilaketa eta ikusketa funtzioak haien ardura izango dira.

12. artikulua — Arau urratzeak

Ordenantza honetan biltzen diren arauak urratzeko hiru maila daude: arina, larria eta oso larria.

1. Urratze arinak:

- a) Ezarritako ordutegitik kanpo edo dagokion udal-baimenik gabe terrazak jartzea.
- b) Debekatutako elementuak jartzea.
- c) Baimendutako zonaldetik kanpo mahaiak edo aulkiak jartzea.
- d) Hartutako eremua behar bezala ez mantentzea, itxura, garbitasuna eta segurtasunari dagokienez.
- e) Ordenantza honetan ezartzen den araubidea ez betetzea.

2. Urratze larriak:

Ordenantza honetan dauden elementuak jartzea, bertan azaltzen diren baldintza teknikoak errespetatu gabe.

- b) Zehapen-espeditentea hasi aurretik hamabi hilabeteko epean bi urratze arin egitea. Horrek behin betiko erabakiaren bitartez zigor bat ezartzea ekarriko du.

3. Urratze oso larriak:

- b) Zehapen-espeditentea hasi aurretik hamabi hilabeteko epean bi urratze larri egitea. Horrek behin betiko erabakiaren bitartez zigor bat ezartzea ekarriko du.

b) Terrazak jartzeagatik eremu publiko bat erabiltzeko eskubidea duten pertsonen eremu horien erabilera eragozteak.

- c) Terraza jartzeagatik eremu publikoetan kalte larri edo nabariak sortzen dituzten jarduerak burutzea.

13. artikulua — Zigorrak

Ordenantza honen arau urratzeek honako zigorrak izango dituzte:

- a) Urratze arinak: 200 eta 750 euro bitarteko isuna eta/edo baimena baliogabetzea eta instalazioa berehala kentzea, udal-eskakizunak betetzen ez badira.
- b) Urratze larriak: 751 eta 1.500 euro bitarteko isuna eta/edo ostatuak etorkizunean Ordenantza honek arautzen dituen baimenak lortzeko aukera bi urtez galtzea, ekintzen larritasunaren arabera.
- c) Urratze oso larriak: 1.501 eta 3.000 euro bitarteko isuna eta/edo ostatuak etorkizunean Ordenantza honek arautzen dituen baimenak lortzeko aukera bi urtez galtzea, ekintzen larritasunaren arabera.

14. artikulua — Zigorrak ezartzea

Aurreko artikuluan zehazten diren zigorrak ezartzeko, erru mailari, urratze motari, urratzearen arrisku mailari, arauak berriz urratzeari eta gerta litezken gainerako egoera larriei erreparatuko zaie.

15. artikulua — Kalteak

Jabari-publikoa erabiltzeagatik eremua kaltetzen edo suntsitzen bada, ezarriko diren zigorrez gain, baimenen titularrak kalteak konpontzera behartuta daude.

16. artikulua — Betearazte subsidiarioa

Instalazioaren erantzuleak bide publikoan jarritako elementuak kentzeko eskatzen duen udal-agintea betetzen ez badu, Ordenantza honek jasotzen dituen egoeretan, Administrazioak elementu horiek kenduko ditu eta udal-biltegietan gordeko ditu. Jabeek, araua urratzeagatik ordaindu beharreko tasak ordaindu ondoren, biltegietatik jaso ahal izango dituzte.

17. artikulua —Zehapen-prozedura

Zehapen-prozeduraren kudeaketan, Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluari eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatzen diren arauak ezarriko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean egongo da «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezartzen duen 15 eguneko epea igaro ondoren.